



Eskolabarri, 10 urteko ibilbidea hezkuntzan

Eskolabarri ikastetxea, 1996an sortu zen irakasleen kooperatiba da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko itunpeko ikastetxea da eta 2 urtetik 12 urte bitarteko 211 ikasle eta 18 langile ditu. Hasierako urteak gogorrak izan ziren eta langileek apustu gogorra egin behar izan zuten eskolak aurrera egiteko. Une latzak, baina, beste momentu gozo askorekin ere egin dute bat eta aurrera egitea lortu dute. Ume kopuruak gora egin duen heinean, langile eta hezkuntza eskaintza ere moldatu egin dute. Beti aurrera begira, urriaren 25ean 10 urte bete zituen egitasmoak. Eta urteek aurrera egin badute ere, euren helburu eta asmoak hasierako berdinak dira. Izan ere, eurek behin eta berriro azpimarratu digute elkarrizketa hau prestatzen genuen bitartean, Eskolabarriko zutabe nagusia, talde lana da.

Orain dela 10 urte, Centro Cultural ikastetxearen titularraren jubilaioaren ondorioz, sortu zen Eskolabarri. Momentu hartan ikastetxeko matrikulazioa nahiko baxua zen eta argi zegoen eskola ez zegoela bere momenturik onenean. Beraz, bi aukera zeuden: bata eskola ixtea eta bigarrena, aurrera egitea. Bertan ari ziren 7 langilek bigarren aukeraren alde egin zuten eta kooperatiba bat sortzea erabaki zuten. Hasierak jakina denez, oso gogorrak izan ziren, langileentzat aldaketa handia izan zelako. "Argi genuen hezkuntza proiektu bat aurrera ateratzeko gai ginela baina gestio aldetik zalantza handiak genuen, langile izatetik kooperatiba bat sortzeko, presatu behar izan ginen, gauza asko ikasi eta ekonomikoki, apustu handia egin genuen guztiok, bakoitzak bere poltsikotik diru asko jarri behar izan dugulako", gogoratzen dute Eskolabarriko langileek.

Ereindakoa jasotzen

Hala ere, apostuak merezi izan zuela aitortzerako orduan ez dute inolako zalantzarik. Izan ere, alde profesionalari erreparatuta eta alde pertsonala kontuan izanda, oso aberasgarria eta polita izan dela azpimarra-



Lehen Hezkuntzako ikasleak

tzen baitute: "Lan gogorra izan da, zalantzarik gabe, lan ordu piloa sartu behar izan ditugu, orain ere sartzen ditugu baina hasieran askoz gehiago. Egunero lana eginez sortu den proiektua da. Aldi berean, asko ikasi dugu eta gaur egun ere, egunero ikasten ari gara. Adibidez, gure artean lanak eta funtzioak banatzen ikasi dugu eta eguneroko funtzionamendua hobetzen ikasten ari garela pentsatzen dugu".

Matrikulazio datuek eskolaren bilakaera erakusten dute. Hasi zenean, Eskolabarririk ehun eta gutxi ikasle zituen, 10 urte pasa direnean, 211 ikasle ditu Ermuko ikastetxe honek. Datuak pozteko modukoak direla aitortzen digute langileek, "Zer bait

ondo egiten ari garen seinale", adierazten dute.

Talde lana helburu

Eskolabarriko langileek hasieratik oso argi izan dute euren proiektua, talde baten proiektua dela, kooperatiba osatzen duten langileen egitasmoa hain zuzen ere. Gaur egun, 18 langilek osatzen dute kooperatiba eta gehienak kooperatibistak dira. Kooperatibako kide izatea inportantea dela iruditzen zaie, kooperatibista izanik, proiektua norberarena bailitzan bizitzen lagun-

tzen duelako. Halaber, langile gehienak ermuarrak dira eta bertokoak izateak, herriko ekitaldietan inplikazio handiagoa dakarrela uste dute.

Hezkuntza proiektua

Hiru zutabe nagusitan oinarritzen da Eskolabarriko hezkuntza proiektua:

Alde batetik, hezkuntza proiektua aurrera eramateko, hezkuntza komunitatearen agente guztien inplikazioa eta lana beharrezkoa dela pentsatzen dute. Ikasle, irakasle, ez dozentek eta

"Egunero lan eginez sortu den proiektua da Eskolabarri"



ILEAPAINDEGIA
Traskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

Solozabal
 estankoa

torrekua z/g
 Tel/Faxa. 943 17 07 33
 fax publikoa

PUB YOMY

**Zubiaurre
 kalearen
 bihotzean**

gurasoen parte hartzea hain zuzen ere. Horregatik, proiektu ezberdinetan guztien parte hartzea bermatzen saiatzen dira. Hori lortzeko, aurretik gauzak landu egin behar dira eta "uste dugu lan inportantea egiten ari garela zentzu horretan. Esaterako, mendi taldea dugu gaur egun martxan eskolan eta gurasoak oso inplikaturik daude bertan, ikasle eta irakasleekin batera. Guztien parte hartzea bultzatzen saiatzen gara proiektu zehatz bitartez. Teorian oso argi duguna, errealitatean ekartzen ahalegintzen gara", azpimarratzen dute irakasleek. Bestalde, eskola bera inguru zehatz batean kokatzen saiatzen dira, kasu honetan Ermuan, "Gure eskola Ermuan dago eta eskola

bizirik dagoen gunea dela pentsatzen dugunez, hori lortzeko egiten dugu lana. Herriko ekitaldietan benetan nahi dugulako hartzen dugu parte eta horrenbeste ekitaldi eta proposamen daudenez, gure helburuekin bat egiten dutenak aukeratu eta horiek garatzen joan gara", azaltzen dute. Azkenik, proiektu berriak sortzeko eskola izan nahi du Eskolabarririk; egoera berrietara moldatzen den eskola bat alegia. "Bizirik dagoen eskola izan nahi dugu. Horrek lana eskatzen du baina uste dugu beharrezkoa dela. Oinarri batzuk izanda, berrizten joatea ezinbestekoa delako", aitortzen dute.

Gaur egun, Eskolabarririk ez du Bigarren Hezkuntzako ikasketarik eskaintzen. Cen-

"Bizirik dagoen eskola izatea dugu helburu"

tro Culturalak lehenik Eibarko Aldatzerekin zuen akordioa, Eskolabarririk mantendu egin zuen. Beraz, Eskolabarririk ateratzen direnek, Aldatzen badute tokirik Bigarren Hezkuntzan aritzeko, baina azken erabakia gurasoena da.

Urteurrena

Eskolaren urteurrena ospatzeko ez dute gauza handirik antolatatu. Urte osoan zehar hainbat ekitaldi xume egingo dituzte, jaialdi txiki-riren bat esaterako. Eskolabarririk langileentzat urte hau,

hausnarketa egiteko momentua ere bada: lorpenak, etorkizunerako asmoak edo helburuak aztertzeko besteak beste.

Urteurrena ospatzeko da-goeneko egin dituzten ekitaldien artean, urriaren 25ean ikastetxearen sarrean musika jarri eta txartel handi bat jarri zuten argazki esanguratsuenekin. Era berean, ikasle eta irakasleek eskolari zorionak abestu zitoten. Gure zorionik beroena hemendik eskaintzen diogu, ZORIONAK ESKOLABARRI!!!

Alazne Aiestaran



Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasleak.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

DROGETENITURRI
EUSKAL BIRUSA

943 17 93 50

Elexoste

